



## **EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK: EMAKUMEAK ETA GIZONAK HAUTAGAITZETAN**

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundearen bidez ganberako kideak hautatzen diren arren –horiek izendatzen dute lehendakaria–, alderdi politiko bakoitzak aurrez zehazten du zein izango den Eusko Legebiltzarrerako bere lehendakaria. 1980ko lehen hauteskundeetatik gaur egun arte, lehendakariak izan diren emakumeen presentzia anekdotikoa izan da. Horrela, bada, emakumezko lehen lehendakaria Enriqueta Benito izan zen, Unidad Alavesa alderdiarekin, 1994an.

Eusko Jaurlaritzarako 2005eko hauteskundeak une garrantzitsua izan ziren ganberaren historian, lehenengoz, gizon baino emakume gehiago egoteaz gain, ordezkariak lortu zuten sei hautagaitzetatik hiruk emakume bat baitzuten lehendakariak. Hala eta guztiz ere, egoera hori apartekoa izan zen, eta ez zen errepikatu hurrengo deialdietan. 2009an, Aintzane Ezenarro izan zen emakumezko lehendakari bakarra, eta 2012an, EH Bilduko Laura Mintegi eta Ezker Batuakoa Raquel Modular soilik izango dira. EH-Bildu koalizioak udal-hauteskundeetan eta Amaiurrek orokorretan izandako emaitzen argira, esan daiteke lehenengo aldia dela emakume bat Eusko Jaurlaritzan ordezkariak zabala izateko aukera duen koalizio baten buru.

**1. taula. Emakumezko lehendakariak, Eusko Jaurlaritzan ordezkariak duten alderdi politikoaren arabera. 1980-2012**

Deialdia	Emakumeren bat da alderdiburu?	Alderdi politikoa
1980	EZ	EZ
1984	EZ	EZ
1986	EZ	EZ
1990	EZ	EZ
1994	Enriqueta Benito	UA
1998	EZ	EZ
2001	EZ	EZ
2005	María San Gil	PP
	Nekane Erraskin	EHAK
	Aintzane Ezenarro	Aralar
2009	Aintzane Ezenarro	Aralar
2012	Laura Mintegi	EH Bildu
	Raquel Modular	Ezker Batua-Berdeak

Iturria: geuk egina.

Lurraldea da Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundeetan barrutiko aulkien banaketa erabakitzen duen irizpide nagusia. Horrela, bada, lurralde historiko bakoitzean 25 aulki hautatzen dira, biztanle-kopurua edozein dela ere. Horrek eta alderdi politiko gehienek lurralde-antolamenduak finkatzen dute lurralde historiko bakoitzean zerrendaburu diren pertsonen garrantzia.

2. taulan 1980az geroztik zerrendaburu izan diren emakumeak ageri dira, lurraldearen eta alderdi politikoaren arabera. 1998tik 2005era, oso emakume gutxi izan ziren zerrendaburu: ordezkariak izan zuten 15 zerrendaburuetatik (gutxi gorabehera) 1 edo 2 soilik ziren emakumeak. Datu horiek ere adierazten dute 2005eko hauteskundeetan 7 emakume soilik izan zirela ganberan ordezkariak eskuratu zuten zerrendetako buru. Egun, 6 emakume dira ziurrenik ordezkariak izango duten alderdi politikoaren zerrendetako buru.

**2. taula. Zerrendaburu izan diren emakumezko legebiltzarkideak, lurralde historikoaren eta alderdi politikoaren arabera. 1984-2012.**

Deialdia	Emakumezko zerrendaburuak	Alderdi politikoak
1984	Maria Dolores Arrieta (Gipuzkoa)	PCE-EPK
	Itziar Aizpurua (Gipuzkoa)	HB
1986	Maria Dolores Arrieta (Gipuzkoa)	PCE-EPK
1990	No hay	-
1994	Mati Iturralde (Araba)	HB
	Jasone Irraragorri (Bizkaia)	EA
1998	Jone Goirizelaia (Bizkaia)	EH
2001	Kontxi Bilbao (Araba)	IU/EB
	Jone Goirizelaia (Bizkaia)	EH
	María San Gil	PP
2005	Mari Carmen Nieves (Araba)	EHAK
	Enriqueta Benito (Araba)	UA
	Kontxi Bilbao (Araba)	IU/EB
	Maite Aranburu (Bizkaia)	EHAK
	María San Gil (Gipuzkoa)	PP
	M. Nekane Erraskin (Gipuzkoa)	EHAK
2009	Aintzane Ezenarro (Gipuzkoa)	Aralar
	Izaskun Bilbao (Bizkaia)	PNV
	Arantxa Quiroga (Gipuzkoa)	PP
2012	Aintzane Ezenarro (Gipuzkoa)	Aralar
	Isabel Salud (Araba)	Ezker Anitza
	Laura Mintegi (Bizkaia)	EH Bildu
	Belén Arrondo (Araba)	EH Bildu
	Raquel Modular(Bizkaia)	Ezker Batua
	Arantxa Quiroga (Gipuzkoa)	PP
	Alba Gutierrez(Gipuzkoa)	Ezker Batua

Iturria: geuk egina.

Emakumeek autonomia-erkidegoetako hauteskundeetan zerrendaburu gisa duten presentzia % 25 ingurukoa da; Andaluzian (% 25), Aragoian (% 26.6), Kanarietan (% 33,3), Gaztela eta Leonen (% 21), Galizian (% 25%) eta Euskadin (% 23,8) (Lois eta Diz, 2012:174). 3. taulan euskal hauteskundeetan ordezkari izan zuten hautagaitzetako zerrendaburu artean emakumeek 1984tik 2009ra izan duten bilakaera adierazten da.

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak ekainaren 15eko 5/1990 Legearen arabera burutzen dira. Lege horren 50. artikulua –hautagaitzei buruzkoa– aldatu egin zen otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, onartu zenean. Horrela, bada, arautzen da hautagaien % 50ek sexu berekoak izan behar dutela, seiko tartetan. Horrela, emakume eta gizonen proportzio hori bete egiten da egungo hautagaitzetan. 3. taulan jasotzen da lehen hiru postuetan dauden

emakumeen kopurua, bestela esanda, alderdi politikoek gutxienekoa betetzen duten eta, ondorioz, emakumeak kuotan soilik ageri diren, alegia, 4, 5 eta 6. postuetan, edo, aldiz, lehen hiru postuetan emakumerik baden.

**3. taula. Ordezkaritza izan zuten hautagaitzen kopurua, buru zuten pertsonaren sexuaren arabera. 1984-2009**

Deialdia	Guztira	Gizonak		Emakumeak	
	Abs.	Abs.	%	Abs.	%
1984	15	13	86,7	2	13,3
1986	18	17	94,4	1	5,6
1990	19	19	100,0	0	0,0
1994	19	17	89,5	2	10,5
1998	18	17	94,4	1	5,6
2001	15	12	80,0	3	20,0
2005	15	8	53,3	7	46,7
2009	15	12	80,0	3	20,0
Total	134	115	85,8	19	14,2

Iturria: geuk egina.

Hautagaitzen zerrendetako goiko postuetan emakumeek presentzia txikiagoa duten arren, taulako datuetan ikusten da Euskadiko kuota ez dela gutxienekoen kuota. Horrek esan nahiko luke lehen 3 postuetan ez dagoela emakumerik, eta hori ez da gertatzen hautagaitza bakar batean ere. Hala eta guztiz ere, bi hautagaitzak dute emakumeen gehieneko ordezkari, alegia, ez dago gizonik lehen hiru postuetan; hori gertatzen da Ezker Batuaren eta EH-Bilduren Bizkaiko zerrendetan.

**4. taula. Eusko Legebiltzarrean ordezkariak duten alderdi politikoaren hautagaitzetako lehen hiru postuetan dauden emakumeen kopurua, lurralde historikoen arabera. 2012.**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira/posibleak
EAJ	1	1	2	4/9
EH-Bildu	2	3	1	6/9
PSE	1	1	1	3/9
PP	1	1	2	4/9
Ezker Batua	1	3	2	6/9
Ezker Anitza	2	1	1	4/9
UPyD	2	1	2	5/9

Iturria: geuk egina.

Azkenik, zenbait hautagaitzatarako garrantzitsuagoa da bigarren tartearen banaketa, alegia, 7.etik 12. postuetarakoa, horien emaitzengatik aurreikus baitaiteke lehen tarteko hautagai guztiak hautatuko direla. Aurreko hauteskundeetan lortutako gehieneko eta gutxieneko aukiak kontuan izanda, litekeena da 7, 8 edo 9. postuek aukia izatea EAJren kasuan Araban edo Bizkaian, PSEren kasuan Araban edo EH-Bilduren kasuan Gipuzkoan. Kasu horien bigarren tartea aztertzen badugu, Araban, EAJk nahiz EH-Bilduk gutxienekoen kuota soilik aplikatzen dute, ez dute emakumerik tarte horretako lehen hiru postuetan. Horrez gain, hautagaitza bakar batek ere ez du emakumezkoen gehienekoa betetzen, eta gehiago dira seiko bigarren tarte horretako lehen hiru postuetan emakumezko hautagai bakarria dutenak.

**5. taula. Eusko Legebiltzarrean ordezkariak duten alderdi politikoen hautagaitzetako bigarren tarteko lehen hiru postuetan dauden emakumeen kopurua, lurralde historikoen arabera. 2012.**

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Emakumezkoak / posibleak
EAJ	0	1	2	3/9
EH-Bildu	0	2	1	3/9
PSE	1	1	2	4/9
PP	1	1	2	4/9
Ezker Batua	2	1	2	6/9
Ezker Anitza	1	1	1	4/9
UPyD	1	2	1	5/9

Iturria: geuk egina.